

Asterako berri ona


Erein

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Egun hartan, Jesus etxetik atera eta itsas ertzean eseri zen. Jendetza handia bildu zitzaion inguruan, eta horregatik ontziska batera igo zen, eta han eseri. Jende guztia itsas bazterrean zegoen. Gauza asko esan zizkien parabolatan:

«Atera zen ereilea ereitera. Eta ereitean, hazi batzuk bide bazterrean erori ziren; etorri ziren txoriak, eta jan egin zituzten. Beste batzuk, lur gutxi zegoen leku harritsu batean erori ziren; berehala jaio ziren, lurra ez baitzen lodia; baina eguzkia atera orduko, erre egin ziren eta, zainik ez zutelako, ihartu. Beste batzuk arantz artean erori ziren; eta arantzek, hazi zirenean, ito egin zituzten. Beste batzuk lur onean erori ziren, eta eman zuten alea: batzuek bateko ehun, besteek hirurogei, eta besteek hogeita hamar. Belarririk duenak, entzun dezala».

[Ikasleek, hurbilduta, galdera hau egin zioten Jesusi: «Zergatik hitzegiten diezu parabolatan?» Hark erantzun zien: «Zuei eman zaizue, zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzeko; horiei, berriz, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; baina ez duenari, duen hura ere kendu egingo zaio. Horregatik hitzegiten diet parabolatan: begiratu arren, ez dutelako ikusten; entzun arren, ez dutelako, ez aditzen ez ulertzen. Horietan betetzen da, Isaias profetak esandako hura:



Zenbait gurasok diote, familia berean bizi eta hezi arren, euren seme-alabak oso desberdinak direla bata bestearekiko. Inork bere nahien arabera egingo bagintu, gure nortasun errepikaezina ukatuz, a zer kalamitate.

Desberdintasunak ikusarazteko, Jesusek harmen portzentaje anitzak aipatzen dizkigu, baina beste batzuetan erantzun mota anitzak ditu hizpide; ez dute zertan bata besteak baino okerrago izan. Balio egokiei bidea zabaltzea eta balio esanguratsuetan hezte da garrantzitsua gizakiarentzat; ez bide horiek behin betirako ezartzea, pertsonak esateko eta ikasteko ezer gutxi balu bezala.

José Ramón Urbieta hezitzaileak dio: Sekula itzalik emango ez dion arbola ereitean, orduantxe sumatuko du hezitzaileak zer den hezitzaile izatea”.

Baina ez dugu etsi behar ereiten den guztia galduko dela eta. Jesusek ez du onartzeko premia zentzu horretan erabiltzen.

Amore ematea tentazio handia da hezitzailearentzat. Hainbeste lan, hainbeste neke besteek ikas dezaten, zintzoak izan daitezen, hainbeste xehetasun, eta askotan lotsagabekeria, iraina, itxurakeria, ukazioa eta erabateko ezin ulertua jaso ohi da bueltan.

Egin duzuna eta egiten duzuna ez da antzua. Segi ereiten, ez dezazula etsi. Ahal duzuna egiten baduzu, lasai egizu lo. Ziur izan, hazia galdu dela arren, ereiten duzunak unerik eta modurik harrigarrienean emango duela fruitua. Chaminade (1761-1850) dohatsua, marianisten fundatzailearen ustez, hezitzaileari dagokiona “ez da jasotzea, ereitea baizik”.